

herrera-bidebieta

Herri-Pek Rugby eta beisbolik ez du nahi

Plan Berezia dela eta ez dela, Herreran ezagutzen dugun Arroitxuloko inguruetan, Kirol Udal Patronatuak rugby eta beisbol zelaiak egiteko asmoa azaldu du.

Herri-Pe Auzo Elkarteak bere desadostasuna agertu du eta kritika latzak egin dizkio proiektu honi Donostiako Udalean ordezkari duden Alderdi Politiko guztiei bidalitako eskutitz batean.

Eskutitz honetan Herri-Pek adierazten du historia eginez «*instituzioek Herreran landu duten hirigintza politikak Arrubi inguruko zelaietarako bidea itxi egin dutela*».

Herri osoarentzat kirolak

Gaur egungo errealitatearekin jarraituz Herri-

Pek orain arteko bere eskaerak alde batera utzi direla uste du «*Herrera auzorako kirol eraikuntzak eskatu ditugu behin eta berriro, herri kirolak praktikatzeko Arroitxuloko ingurua egokia dela uste dugu. Bertan, Altza, Herrera eta Intxaurrondo inguruan egiten diren kirol mota ugarirako pista eta instalazioak eraiki daitezkeelarik*».

Kompetentziarik gabeko kirola

Herri-Pek kritika zehatza egiten dio Udal Patronatuaren erabakiari esanaz kirol eraikuntza berriek kirolaren praktika bultzatzeko egin beharko lirakeela eta ez lasterke eta pertsonen arteko kompetentzia sortzen duten kirolak egiteko.



Ximon

Hau dela eta Herri-Pe Auzo Elkarteak rokodromo, tenis eta erabilera ugarirako atletismo pista, haur jokuetarako lekua eta pasealekuak eskatzen ditu. Jose Elozegi ibilbidetik bertaraino bidexka bat egitea ere proposatu du auzokideak ordezkatzeko dituen elkarte hauek.

LARRAITZ GARMENDIA | Tfnoa.:391267

Eskakizun guzti hauek Donostiako Udalak Kirol Udal Patronatuaren bitartez 1988. urtean landutako ikerketa batean ikus daitezke: «kirol praktikarako leku baten garapena nahi da, entrenamendutarako, giharreak lasaitzeko».

Euskal-Giroa Elkarteak

igandean Donibane Lohitzunera txirrinda bidaia egingo du. Irteera goizeko 8.30etan izango da eta ibilaldiak 60 kmko luzera izango du.

Gainera, Euskal-Giroako 8 txirrindularik parte hartuko dute igandean Medina de Pomar herrian izango den lasterketan.



Langabazi eta murrizketa sozialen aurka MAIATZAREN LEHENEAN EZ ZAITEZ IXILIK GERA!

IRUTXULO etxean jaso nahi baduzu Bete ezazu 29. orrialdean dagoen orritxo eta bidali lehen bait lehen helbide honetara Euskal Herria plaza z/g 20001 DONOSTIA

intxaurrondo

Karate txapelaldunak


Karatearen mutilak ditugu bi intxaurrondotar hauek. Beren izenak Jon Trigueros eta Iñigo de la Granja dira eta Aste Santuan Alicanten ospatutako Estatuko Karate Txapelketan txapelaldun geratu dira bakoitza bere kategorian.

Jonek 14 urte ditu eta 7 urtekin hasi zen kirol hau egiten. Bere kategoria jubencil mailakoa da eta Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketa ugaritan hartu du parte. Hala ere, pozik haundiena, Estatuko txapelketan bi lehen sari lortzea izan da: bata, mugimenduetan eta bestea, bo-


rrokan. Sari hauek irabaztearekin, karate munduan aurrera egiteko gogoia areagotu zaio.

Iñigo 11 urteko gaztea da eta laupabost urte daramatza kirol honetan. Infantil kategorian, behin bakarrik parte hartu du Euskadiko txapelketan eta orain, Estatuko txapelketan txapelaldun geratu da. Karatea baino, futbola nahiago badu ere, biak praktikatzeko jarraituko du.

650 bat gaztek hartu dute parte txapelketan, antolakuntza oso txarra izan dela eta gastu ugari ordaindu behar izan dituztela adierazi dute partaideek.



Zenbait arazori aurre eginaz, bi gazteak gogor dabilta kirol honetan. Hasera batean entrenamenduak auzoan bertan zitzuten, orain berriz, Pasaiaraino joan behar dute.



Roxall

Txapelketa hiru kategoriatan banatzen da eta jubencilan izan ezik,

IPEk bere taldea finalean sartzea lortu du.

Gainera, senior mailan bi bikoteak talde

berekoak izateak, ikusmin

handia sortuko du.

III. Neguko Pilota Txapelketa

Urtarrilean hasi zen Intxaurrondoko neguko txapelketa apirilaren 24ean bukatuko da. Intxaurrondoko Pilota Elkarteak (IPE) antolatzen du, Iñaki Aldanalderekin omenez eta dagoeneko hirugarren urtea da txapelketa hau ospatzen dela.

Esan bezala, finalak apirilaren 24ean izango dira, goizeko 10.30etan hasita. Hauek dira jokatu-

ko diren partiduak: kadete mailan, Bobillo-Olariaga (IPE), Landa-Arrietaren aurka (Anoeta). Jubencil mailan, Matxain-Sanchez (Usurbil) eta Gascon-Uzkudun (Añorga) arituko dira lehian. Azkenik, senior mailan, Auzmendi-Apezetxea eta Carrete-De Santos izango dira, biak IPE taldekoak.

NAGORE IRASTORZA (Tfnoa.:285749)

EVRA

isaketa -garbiketa

• Jaso eta itzuli
48 ordutan,
doan.

Intxaurrondo, 62. ☎ 28 68 16